

# iBBY España oepli



CONSELL  
CATALÀ DEL  
LLIBRE INFANTIL  
I JUVENIL

CONSEJO  
GENERAL  
DEL LIBRO



galix  
asociación  
galega  
do libro  
infantil e xuvenil



OEPLI – IBBY Espainiatik (Haur eta Gazte Liburueterako Espainiako Erakundea) eta bere lau ataletatik GURE KEZKA ADIERAZI nahi dugu, haur eta gazte literaturan zabaltzen ari den politikoki zuzenarekiko joerarekiko.

Roald Dahlen lanak irakurle berriei egokitzeko berridatzi izanaren albisteak sortutako polemikak arazo bat azaleratu du, baina arazo hori ez da berria. Arazo horrek klasikoen berrargitalpenari eragiteaz gain, egungo produkzioan ere ondorioak ditu. Izan ere, sortzaile, editore, irakasle eta bitartekari askok, autozentsurak baldintzatuta, irakurgaiak deseroso gerta ez daitezzen, gatazkak edota ustezko irainak saihesten dituzte.

Zentsura eta autozuzenketa praktika horiek, batzuetan bogan dauden gaiak desagerrarazi edo ezkutatu eta beste kasu batzuetan gaiok integratzera dakar, baina literatura instrumentalizatzen dute betiere eta, nolana den, argitalpen-eskaintza pobretzen dute arriskuak, aniztasuna, askatasun artistikoa eta espiritu kritikoa kaltetzen dituzten heinean.

Asmo oneko heldu horiek duten haurrak babesteko eta onartzen eta desio dugun mundua bakarrik erakusteko xedek ondorio gehiago ditu. Haurrek kontraesanak, bidegabekeriak eta egoera konplexuak bizi baitituzte, eta ez erakutsita ez dira desagertuko. Gainera, haurrek historia luze baten testuinguruan kokatzeko beharra dute, tradizio baten oinordeko direla jakin behar dute, harekin aurrez aurre jarri eta iraultzeko modu propioak aurkitzeko.

Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu haur eta gazte literaturarekiko honako konpromiso kolektiboa ALDARRIKATZEA:

- Haurrek obrak eta mundua irakurtzeko eta interpretatzeko dituzten gaitasunak errespetatuko dituen, konplexutasunetik, ironiatik, lotsagabekeriatik, sinbolismotik eta irudimenetik abiatuta.
- Gizarteak esleitzen dion hezkuntza-xedek mugatuko ez duen haur eta gazte literatura.
- Sormen-askatasuna errespetatuko duena.
- Artea den adierazpide eta berrikuntza baliabidearekin konprometitua, arriskuak hartu, galderak erantzunak baino gehiago estimulatu eta erronkak proposatuko dituen haur eta gazte literatura.

Madril, 2023ko otsailaren 22a

Luis Zandrera  
Presidente